



STREET LUGE IZENEKO KIROL EZEZAGUNA

Mikel Echegaray, Street lugeko munduko txapelduna. Gurpil gainean eta maldan bera doan abiadura eta adrenalinezko kirola.

Begoña Sebastian Rodriguez, Ekaitz Etxeberria AgirreAgirre eta Koldo Gonzalez Lopez de Sabando.

Denok ezagutzen ditugun kiroleetatik haratago, hala nola futbola, tenisa eta saskibaloia, mundu osoan kirol ugari daude, ikusgarriak, harrigarriak edo desatseginak edo beldurgarriak izatera iritsi daitezkeenak.



Street Luge, izeneko kirol hau, Suizan sortu zen Caspar Raduttengatik 1975. urtean. Kirol hau ez da oso ezaguna ez delako asko praktikatzen eta herri eta hirietatik urrun praktikatzen dutelako. Material gutxi behar dira. Mundu osan zehar badaude hainbat txapelketa adibidez: Italiako txapelketa. Planetaren grabitate azkarrenak bultzatutako kiroleko bat da.

Street Lugen txapelketa importate asko daude. Lehen esan dugun bezela, Italian, munduko txapeldun bezela proklamatu zen Mikel Echegaray, Canadian,

Españan,
Estatu Batuetan, Malasian, Australian, Herbeheretan eta Frantzia. Bera entrebistatu
dugu eta artikularen amaieran daude bere erantzunak.

Zer material behar dira?

Street Luge profesional bat bezela egiteko hurrengo materialak

beharko dituzu: Kokotsa babesten duen kasko bat
(parapentekoak gehiago babesten du), koderak,
orkatilak,

motokrosean babesteko erabiltzen den moduko
bularraldea,

arropa sendotua, zoladurarekin marruskadurari eusten
dioten

larruzko eskularruak, tabla bat 1,5m-takoak eta 14kg gutxi gora
beherakoak (normalean pertsonalizatuak dira) eta zola
sendotuak dituzten zapatilak erabili behar dira kirol hau
praktikatzeko.



street luge kirola?

Street luge modalitatean, kirolariak lurretik
zentimetro gutxira maneiatzen du skatea, eta
150 kilometro ordurarte iritsi dezakete. Beraz,
babesteko kaskoak eta jantzi bereziak erabili
arren, istripuak arriskutsuak eta ikusgarriak
izan daitezke. Oso arriskutsua da kirol hau
baina, baita ikusgarria ere.

Nola antolatzen eta egiten dira karrerak?

Karrera bat normalean banaka egiten da, normalean hilabete batean 2 karrera
egoten dira eta astebukaeretan ospatzen dira udaran beste urtarotetan baina karrera
gehiago egoten dira. Munduko txapelketa urtero egiten da, eta leku ezberdin batean.
Normalean Red-Bullek antolatzen ditu nahiz eta beste federazio batzuk ere
badauden. Urtean zehar txapelketak eta lehiaketak egiten dira herrialde askotan,
baina batez ere hauetan Sudafrikan, Suitzan, Ingalaterran, Estatu batuetan, Suezian
eta Espainian famatuena Lloret de Mar-ekoa da.

Espainia mailan normalean Gironako komunitatean egiten dira. Orain arte egin
direnak ospetsuenak Tossa de Mar-en egin zen txapelketa da.

Normalean karrerak km 1 dituzte eta 124km/h - ra joaten dira. Kirol hau praktikatzeko gutxienez 14 urte behar dira baina adingabeak beraien gurasoen baimenta behar dute.

Street lugeko patrozinadore nagusia

Street lugeko bideoen bat ikusi duen pertsona batek seguruena Red Bull patrozinadorea dela esango luke baina hori ez da egia. BMW da patrozinadore ofiziala Hargassner Ges mbH, Skechers eta EBERSPÄCHER-en alboan.

Karrera hauen luzera

Karrera hauen luzera normalean 4km eta 8 km artean egoten da, hasieratik amaieraraino 3 eta 8 minuturen barruan ibiltzen dira, naiz eta errebuelta estuak baldin baditu jaitsiera honek gehiago irauten duten.

“ 133km/h-ra joatea lurretik 2cm-tara sensatzio ikaragarria da”

Mikel Echegaray- Street Lugeko kirolaria

Bi aldiz munduko txapelduna izan da

Noiz eta nola jakin zenuen kirol hau existitzen zela?

2005. urtean bideo batzuk ikusi nituen karrera

batzuk Red-Bull-ekoak San Franciscon, bertan

Street Lugeko pilotoak San Franciscoko kaleetan zehar jaisten ikusi nituen. Oso interesgarria eta ikaragarria iruditu zitzaidan eta

onek kirola praktikatzera gonbidatu nintuen.



Non hasi zinen kirola praktikatzen? Ze materialekin

hasi zinen?

2006.urtean bideo batzuk ikusi nituen konstrukzio metalikoko gradu bat egiten ari nintzanean. Zonagrabadad.com izeneko web-orri bat aurkitu nuen eta horretan street lugeko argazki ezberdinak agertzen ziren eta nota txiki batzuk hartu nituen kontuan tabla eraikitzekeo garaian. Lagun baten laguntzarekin hasi ginen prototipo batzuk eraikitzen karreterako seinaleekin eta txapa batzuekin.

Lagunen batekin hasi zinen kirola praktikatzen?

Bai, nirekin ikasten zegoen lagun bat eta ni animatu egin ginen eta street lugeko lehenengo patinetea egin genuen eta ondo funtzionatu zuen. Beraz, jarraitu genuen.

Noiz eta non hasi zinen konpetitzen?

Nire lehenengo karrera 2007-ko urtarrilean Tossa de Mar-en, Gironan, izan zen.

Nola sentitu zinen zure lehenengo konpetitzioan?

Ondo, oso animatuta. Bertan, interneteko argazki eta bideotan agertzen ziren piloto espainiar famatuak ezagutu nituen. Oso ikaragarria izan zen haiekin konpetitzea, ezer ez jakin arren.

Lagunen bat joan al zen zu ikustera?

Bai, 2006.urtean raider frantses batzuk ezagutu nituen non haiekin entrenatzen hasi nintzen. Haiek oso ondo hartu ninduten. Beraiek joan ziren nire lehenengo karrerara.

Zenbat konpetizio egin dituzu guztira?

Ez dakit seguru, baina uzte dut 80 gutxi gora behera.

Interneten atera zaigu munduko txapelduna izan zarela, baina zenbat aldiz?

Munduko txapelduna bi aldiz izan nintzen, 2015 eta 2016 urteetan bi aldiz jarraian.

Eta noiz izan zen irabazi zenuen lehen munduko txapelketa?

2015-ean irabazi nuen lehenengo aldiz.

Zer eman zizuten irabazteagatik?

500€ gogoratzen dut gaizki ez banago eman zizkidatela txapelketa irabazteagatik.

Esaten dutenez 133km/h-ra iritsi zara. Zer sentazio ematen du horrek?

133km/h-ra joatea lurretik 2cm-tara sensazio ikaragarria da. Haizea asko nabaritzen da eta oso kontzentratuta joan behar zara mugimendu arrarorik ez egiteko. Aerodinamika ikaragarri

importantea da. Hala ere, ez zait gustatzen hain azkar joatea akats txiki bat eginez kolpe handia ekar dezakelako. Nahiago dut 80-100km/h-ra joatea eta errebuelta gehiago dituen ibilbideetan ibiltzea. Hala ere, batzuetan, ez dator hain gaizki abiadura handietara joatea.